

Ni Pragan, Praga nigan

Udazkeneko ilunabar batean iritsi naiz Pragara, hiriko sarrerako neoizko argipean, eta zuzenean hotelera joan naiz. Gaua hotel bateko gela batean pasa ondoren, egun-sentiko eguzki zuriaz iratzarri naiz eta Pragako udazkena ezagutzera animatu naiz.

Espazio existenziala da guztia edo dena egin daitekeen tokia, dena egiten uzten da baina ezaxolarik gabe. Horrela, Pragako karriketan eta eraikinetan zer-bait berezia eta misteriozua aurkitu dut eta ez dakit zer den; ez nau indiferente uzten. Agian, Kafka usaintzen dut noranahi nola, baina nahasirik nago hainbeste turistaren artean ibiltzen.

Kafkarengan, berriz, Praga aurkitzen dugu, haren obretan ez dago Praga esplizituki, baina haren idatzietan topografia imaginario osoa aurkitzen dugu, eta hori hiri honetan sumatzen dut,

karriketako txekierazko hitz ahoskagaitzetan. Baina Kafkak alemanez, inperioko hizkuntza ofizialaz, idazten zuen. Zergatik?

Ezustean hizkuntzak nahasten dira eta bat-batean eraldatzen zait Praga neure aurrean, eta neuregan halako gauza zehaztugabe kaotiko bat sartzen da. Noraino eramaten gaitu hiri baten metamorfosiak?

Karriketan gaitzera: Praské Hrad, Malostranské namestí, Cihelua, Kafka Museum, Karluv Most, Krizovnická, auzo judua, Savoy kafetegia, Vezenskan, Staromestske namestí, erlojua, Mustek, Vaclavské namestí... zer esaten didate hitz edo izen horiek?

Gogor kolpatzen naute. Liburu batek aizkora bat izan behar du gure barneko itsaso hormatua-rentzat, hori esan zuen bederen Kafkak, eta Arestiren olerki hura etorri zait burura: poesia mailua

da. Hi-tzek kolpatzen naute, nahiz eta txekiera ez ulertu. Baina ez da hizkuntza bat jakin beharrik hizkuntza horretako hitzek norberaren bihotza kolpatzeko eta kontzientzia iratzartzeko. Bai, hitzak aizkora edo mailua dira, nire islitasun bakartia hausten dutenak, eta noizean behin ohartzen naiz Pragaren alde zaharraz bestalde edo hitzez bestalde argazkien flashak daudela. Turistak.

Malá Strana. Alde zaharrera abiatu naiz auzo judua ezagutu nahian, baina Bremengo musikarien gisa ez naiz helburu horretara iritsi eta bidean gelditu naiz. Neruda poeta txiletarra ezagutzen nuen eta gustuko dut, baina Pragan Neruda idazle txekiarren izena duen karrika xar-

(1976/16/16) **Ainara Maia Urroz**

Euskal filologian lizentziaduna naiz, baina bokazioz idazlea... beti ari naiz idazten! Ene sentimenduak poesiaren bidez adieraztea gustuko dut, kantu leun baten gisa. Arrosa baten arantzak ziztatzuz gero, barruraino sartzen zait eta nolabait ere kanporatu behar dut... edozein hizkuntzatan, baina batez ere euskaraz... idazle izan nahi dut, baina poeta naiz! Maite dut ene ametsetan hegan egitea, ene sentimenduak poesiaren bidez antzeztea eta pentsamenduaren bidez urrutiko munduetara joanez galtzea... inor inoiz egon ez den toki zoragarri horietara joatea gustuko dut, eta ez dago liburuetan sarztea besterik modu onean bidaiatzeko.





magarria deskubritu dut eta turistez beste eginez Nerudova karrikan ibilian alde zaharreko karrketan galdu naiz.

Jan Neruda XIX. mendean sortu zen eta XX. mendean hil. Oraindik ez dakit zergatik hartu ote zuen Ricardo Eliezer Neftalí Reyes Basoalto poeta txiletarrak izen hori, baina seguru aski gus-tuko izango zuen idazle txekiarra eta haren "Malá Stranako ipuinak".

Eguerdiko eguzki zuriak itsutzen dizkit begiak eta behatzak hormaturik Kafka sartzen zeneko kafetegi txiki batean, Savoy kafetegian, sartu naiz: taberna xumea da eta kava hutsa eskatu dut kavarana hartan.

Beharbada Neruda ere sartu izango zen Kafkaren aurretik, eta Malá Stranako karrketan bere begirada galduz bere ipuinak idatzi zituen. Akaso "hiru lillien ostatuan" sartu zen egun ekaiztsu eta ilun batetik babestearren eta horrela emakume baten gorputz goxoa besarkatzearren.

Eguerdiko eguzki zuriak itsutzen dizkit begiak, eta behatzak hormaturik, Kafka sartzen zeneko kafetegi batean sartu naiz

Baina ni bakarrik nago pivo bat edaten ari diren txekiarrei so eta, kafea edan dudanean, kavarana txiki hartatik atera naiz babesgabe, ostatu txiki xume polit hartan nik bederen ez bainuen beso abegikor batzuen kontsolamendurik aurkitu!

Orduan, bi nerudak eta kafka gogoan, hotelera itzuli naiz eta koroa txekiarretan ordaindu dut ostatua.

Kontatu didate urteetan Txekoslovakiako presidente izandakoa idazle eta antzerkigile opera delá: Vaclav Havel... baina pertsonaia horri buruz bertze egun batean solastatu beharko dut, hari buruz zerbaít irakurtzen dudanean, ala?

Pragako autobus gettokira joan naiz, bertatik Brno hirira itzultzeko. Bi ordu eta erdiko bidaia izango dut, baina merezi izango du, seguru! Kontatu didate bertan sortu zela Milan Kundera... ezagutzen al duzue idazle txekiarra? Orain Parisen bizi da eta frantsesez idazten du...